

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11 / 548. zenbakia




Antxintxika Donostian eta Austrian

Herriko triatletek emaitza aipagarriak lortu dituzte Donostiako triatloian eta Austriako Ironman proban

Atzean, Unai Alberdi Donostiako triatloian.

GIZARTEA: MERKATARITZA INDARTZEKO PLANA MARTXAN/5 • JAZZA: MIREN ARANBURU ESPOLOIAN/12

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARGAZKIPRESS



Musikaire

Udako Jaialdiak Elorrión 2003



Ekainak 20
CAPELLA GREGORIANA EASO
Ostirala, 22.30
San Agutingo elizan

Ekainak 21
BRASSASS COMPANY
larunbata, 22.30
Jazz fusioa
Gazetako Andra Mari ermitan ●Elizpean

Ekainak 27
BIDINTE
Ostirala, 22.30
World Music
San Jose Ermitan ●Elizpean

Ekainak 28
III. KULTUR AZOKA
larunbata
Plazan /9,30-14,30

Ekainak 28
TANGATA
larunbata, 22.30
Tangoak
Argifietan

Uztailak 4
HAIZEA
Ostirala, 22.30
Organoa eta tronpeta
Elizan

Uztailak 5
NON DEMONTRE LOGELA multimedia
larunbata, 22.30
Multimedia Ikuskizuna
Plazan ●Arriolan

Uztailak 6
LA CONTROVERSIA DE VALLADOLID
igandea, 22.30
Antzerkia
Plazan ●Arriolan

Uztailak 11
1937 GOGOAREN BIDEZIDORRETATIK
Ostirala, 22.30
Dantza
Elizpean ●Arriolan

Uztailak 12
JOSE LUIS MONTON
larunbata, 22.30
Flamenkoa
Lourdesko koban ●Elizpean

Uztailak 18
PIRINEOS JAZZ ORCHESTRA
Ostirala, 22.30
Elizpean ●Arriolan

Uztailak 19
GRUPO BILBAO CAMARA
larunbata, 22.30
Klasikoa
Casajera jauregian ●Elizan

Uztailak 20
BARTO
igandea
Kale antzerkia
Bi pase: 20.00 eta 22.00
Plazan /Kale Antzerkia ●Elizpean

Uztailak 25
NEW ORLEANS GOSPEL CHORALE
Ostirala, 22.30
Elizpean ●Arriolan

Uztailak 26
KRANSNOYARKS CHAMBER ORCHESTRA
larunbata, 22.30
Klasikoa
Toia jauregian ●Elizan

● EGURALDI TXARRA EGITEN BADU

Babesleak



Leguntzaleak




ATREBENTZIAEZPADA/ Eruan izan dozu autua San Kristobalera bedeinkatzera?



VALENTÍN GONZÁLEZ
45 urte




IRENE MARTÍNEZ
25 urte




ANTONIO MERCHÁN
61 urte



AMAIA UNAMUNO
31 urte



FELIX ZENITAGOIA
75 urte



ARKAITZ RUIZ DE LOIZAGA
26 urte

Bai, autua eta furgonetia, bixak bedeinkatu ditut, bakoitza erosi nebanian. Gaiñera, urtero eruaten ditut lorak, edo autuan edo furgonetan, segun eta bixetako zeinekin nabillen.

Ez daukat autorik, beraz, ezin bedeinkatzera eruan. Dana dala, holako ohiturak asko gustatzen jat. Eta, horretaz aparte, San Kristobalgo jaixetan ez naiz sekula egon.

Ez daukat ez gidatzeko bai-menik, ezta autorik be. Hala ezin eruan autua bedeinkatzera. Semiek badauke autua, eta igoal eruango zeben San Kristobalera bedeinkatzera.

Autua erosi nebanian, orain dala bederatzi bat urte, eraman neban bedeinkatzera, baiña Arantzazura, ez San Kristobalera. Bestela, egunian ez jat ipintzen lorarik.

Ez daukat autorik, eta ezin eruan bedeinkatzera. Jun be ez naiz egitten San Kristobalera. Erretiratuta gare. Lehen bai, askotan jutengiñan, baina oin, berriz, lagata gare.

Autua badaukat, baiña ez dot sekula eruan bedeinkatzera; ez San Kristobalera, ezta Arantzazura be. Ez jat burutik pasau. Jaiixetan be ez naiz sekula egon San Kristobalen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRONTZI FALTA Irakurle batek zakarrontzi falta sumatu du Irizarako parketxoan. Oso txukun jarri dutela esan du: lora-tegiak, zorua, bankuak... berritu dituzte. Hala eta guztiz ere, gauza bat falta dela azaldu du: zakarrontziak, hain justu ere. Haren esanetan, gauzak txukun izateko gauzetako bat zakarrontziak dira. Hark, behintzat, eskertuko lituzke. /M.B.

ASTEKODATUA

28

DOMEKAN SOKATIRARAKO IZENA EMAN ZUTENAK

Domekan, San Martzialen, 28 taldek eman zuten izena sokatiran parte hartzeko. Urtetik urtera jende gehiago animatzen da parte hartzen. Txingetan ere jende asko animatu zen: 30 hain justu.

BESTEKEESANA

“ Garraiariok ez ditugu langile batek dituen eskubideak. Bada-kigu, edozein langilek, eskubideak izanda ere, asko dagoela lortzeko, baina garraioaren kasuak koloreak atera beharko lizkioke horretan zerikusia duen orori lotsarik izango balu, bederen. Eta errudunak bilatzen jarrita alde guztietara begiratu genezake, baita gure zilborrari ere; izan ere, garraiolarion artean badago elkartasuna bideratzeko beharra. Jakina da kompetentzia ez leialak, interes partikularren defentsak eta sektorean gertatzen ari diren aldaketek elkartu baino alderatu egiten gaituztela. Hori badakigu, baina ez gara dakigun bakarrak; izan ere, garraiariari botere handia dugu eta gure artean banaketa izateak botere horren indarrari eragiten dio indarge uzteko arriskuarekin. **IÑAKI GABILONDO / Hiru sindikatua 'Gara' / 03-07-07**

BERAIEKDIÑOĒ/ Iñigo Alberdi Amasorrain



Oxirondo

D atorren egubakoitzean, Santa Marina eguna, eliza berritua irekiko dute urte luze irundako obren ostean. Lerrook gonbitea besterik ez dira herrian daukagun eraikin zoragarri hori bisitatzeko.

Obren ondoren oso ondo preziatzen da elizaren planta, bere saloi izugarri izaera hori, eta bere handitasun hori agerian gelditzen da. Lau zutabeak inongo gehigarririk gabe mardul eta eder ageri dira. Sinbolikoki lau zutabeok lau ebanjelariak irudikatzen dituzte, fedearen oinarri gisara. Harriak nagusitasuna hartzen du zaharberritzearen ondoren.

Obretako aldarmioak jarrita zeudela, sabai puntaraino (margoak agertutako lekuraino) igotzeko aukera izan nuen eta ezin dut ahaztu bista hura. Altuerak sorturiko hutsune sentsazioa eta espazio handi baten gainean ibiltzea nahiko fuertea egin zitzaidan. Gainera, azken 500 urtetan han goian inor ibili ez dela pentsatzeak badu bere xarma.

Elizako punta horretan sinbolismoz beteriko margoak eta klabeak daude. Harriak badauka mezu bat, eta sinboloak esanahi bat. Zirkuluak perfekzioa eta eternitatea sinbolizatzen du eta justu zirkulua irudikatzen da elizako “zeruan”, puntu garaienean.

“Obren ondoren oso ondo preziatzen da elizaren planta, eta bere handitasuna agerian geratu da”

Ezer ez dago lekuz kanpo, denak dauka arrazoiren bat. Argi dager tenpluak eraikitzean zeukaten asmo pedagogikoa, doktrinazkoa nahi bada. Liburu bat bezala irakur daiteke eraikuntza; harriari idatziriko liburu baten gisara.

Beti ezagutu dugun eliza da, baina inoiz baino gazteago agertuz, bere betikotasuna, bere iraunkortasuna arto erakusten digu. Badirudi ozen dioela “hemen nago”. Ez naiz fedez ari. Tenpluek (edozein erlijio-takoak) badauzkate eraikuntza moduan ezaugarri berezi batzuk eta elkartzeko gune bezala pentsatu dira.

Herritar gisa ezin ditut hitzok bukatu obrak posible egin dituzten guztiak zoriondu gabe.

ETABARRUAN...

<p>ASTEKO BERRIAK /5</p> <p>Atzerriko umeak gurean</p> <p>Errusia, Ukraina eta Saharako lau ume etorri dira oporrak hemengo lau familiarekin igarotzeko.</p>	<p>KIROLAK /10</p> <p>Ipintzako finalak</p> <p>Gaur, egubakoitza, nesken finalak eta hilaren 18an Futbol 11koa jokatu dira ipintzan.</p>	<p>KULTURA /12</p> <p>Aritzeta abesbatzaren saioa</p> <p>Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du hilaren 18an, Santa Marinako ospakizunen barruan.</p>
---	---	---

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 12**
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 13**
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 14**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 15**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 16**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- EGUENA, 17**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Ambulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaeleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaltzea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaltzea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoliza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
11:30, 13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

PILOTA SAILAREN ZOZKETA
Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan 1.095 izan da zembakia saritua. Txartelaren jabeak pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. 2.767 zembakiari, berriz, Infernukua tabernan lau lagunendako afaria eta 200 euro egokitu zaizkio. Saritutakoek 943 76 23 01 (Reyes Azkoitia) telefonora deitu beharko dute.

INFORMATIKA IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztientzako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zembakian.

BKE: ZOZKETA

Bergara Kirol Elkarteak maiatzean egindako zozketan 1.731 zembakia izan da saritua. Txartel irabazlea Belengua tabernan saldu zuten.

ODOL ATERATZEA

Odol Emaileen Elkarteak jakin arazi duenez, odol ateratzea egingo da hilaren 23an. Ohiko moduan, Seminarioko lokalean egingo da, 18:30ean hasita. Abuztuan beste bi odol ateratze egingo dira, hilaren 13an eta 27an.

JARDUNEN AGENDA

GAZTETXOEN IRTEERA EGINORA IRAILEAN
Antxintxika programaren barruan, Jarduneko gaztetxoek Eginora irteera egingo dute irailaren 3tik 6ra bitartean. Izenematea Jarduneko bulegoan, Errotalde jauregian egin daiteke. Argibideak 943 76 08 19 edo 943 76 36 61 telefono zembakietan.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Sierbak Bergaratik ez joateko firma bilketa


Mariaren Sierbak gure herrian jarraitzeko firma bilketa egin zen 1993ko uztailean. 96 urtez Bergaran egon eta gero, sierben Zuzendari Nagusiak mojak gure herri- tik alde egiteko erabakia hartu zuen, bokazio eta pertsonal fal- tagatik. Erabaki horren aurkako 4.345 firma jaso ziren herrian.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Mazpillunia"

Mailatua, maspildura. —Ezkerreko al- dian dauka mazpillunia kotxiak.



HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 4	10 °C
MAXIMOA Martitzena, 8	31 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,2 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 2	23 °C 15 °C 0,2 l/m²
Eguena, 3	23 °C 15 °C — l/m²
Egubakoitza, 4	24 °C 10 °C — l/m²
Zapatua, 5	23 °C 13 °C — l/m²
Domeka, 6	22 °C 17 °C — l/m²
Astelehena, 7	21 °C 17 °C — l/m²
Martitzena, 8	31 °C 18 °C — l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

ERROMESALDIA ARANTZAZURA

Uztailaren 25ean erromesaldia izango da Arantzazura eta gero bisita Loiolako Santutegira. Irteera 09:30ean izango da, autobus geltokitik. Erromesaldia eta penitentzia komunitarioa bukatutakoan, erromesen bazkaria izango da Hospederian, 14:00etan. Loiolako Santutegira joateko autobusa 17:30ean aterako da. Txartelak Agirrebeña jatetxean, Zerkauzi janari dendan eta Zatoia arropa denda salgai daude.



BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GIZARTEA/ Lehenik eta behin, merkataritzaren egoeraren diagnostikoa egongo dute; horren ondoren, egoera hobetzeko ekintzak prestatuko dituzte

Udalak merkataritza indartzeko plana jarri du abian, Jaurlaritzaren laguntzarekin

MONIKA BELASTEGI

Planaren helburua da herriko merkataritza indartzea. Batik bat, merkataritzagune handien ugaritzea dela eta ekin diote planari, guneok herriko merkataritzaren garapenean duten eragina kontuan hartuta. Uztailean planaren lehen urratsa hasi da: datuak batzea.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekimena da plan hori, eta Udalak herrian aurrera eramatea erabaki du. Udal arduradunak kontziente dira gaur egun hedatzen eta ugaritzen diharduten merkataritza forma berriek eta, bereziki, herritik kanpo egiten dituzten azalera handiko zentrok eragina dutela herriaren garapenean: bai garapen ekonomikoan, baita gizarte arloan ere.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren plana aurrera eramatea erabaki dute, herriko merkataritza indartzeko asmoz.



Merkataritzagune handien aurrean herriko merkataritza bultzatzea du helburu Jaurlaritzaren planak.

ARTXIBOA

LEHENENGO, DIAGNOSTIKOA EGIN, ETA GERO, NEURRIAK HARTU

Planak bi zeregin nagusi ditu: lehenik eta behin, herriko merkataritzaren diagnostikoa egitea; eta, horren ondoren, etorkizunerako aurreikuspenak egitea, hau da, hirigintza eta merkataritza eremuetan hainbat ekintza aurrera eramatea.

Dagoeneko hasita dago plana, uztailean hasi da, eta lehenengo fasea egiten dihardute: merkataritzaren egoeraren diagnosis, hain justu ere. Bilboko Idom enpresak dihardu zeregin horretan, eta, bereziki, informazioa batzeaz arduratuko da.

INFORMAZIOA BATZEKO HERRITARREI DEITUKO DIETE TELEFONAZ

Informazioa batzeko inkestetan oinarrituko da Idom enpresa, eta inkestok herritarrei egingo dizkiete, telefonoz. Hori horrela iza-

nik, Udalak eta herriko dendariak eskertu egingo dute herritarren laguntza, eta inkestak arretaz erantzutea eskatzen dute, inkestok zertarako diren kontuan izanda. Inkesta horiek uztailean barre-

na egingo dituztela aurreratu dute Udaleko iturriek.

AURRERA BEGIRA EGIN BEHARREKOAK

Herriko merkataritzaren diagnostikoa egin eta gero, bigarren

zeregina etorkizunerako aurreikuspenak egitea izango da, eta hor, Udalak eta merkatariek merkataritza indartzeko zein ekintza egin beharko dituzten zehaztuko dute.

Udalari dagokionez, hirigintza arloko hobekuntzekin eta sentsibilizazio kanpainekin lotutako ekintzak izango dira. Dendarien kasuan, berriz, euren jarduna hobetzeko ekintzetan.

Udaleko iturrien esanetan, Bedelkar elkarteari eta herriko merkatariei oso egokia iruditu zaie Udalak abian jarritako plan hori.

Asmoa da egoeraren diagnostikoa egitea eta gero, egoera hori hobetzeko neurriak hartzea

Herriko merkataritzaren diagnostikoa egiteko datu bilketa egingo dute uztailean

Herritarrei egindako telefono deietan oinarrituko dira datu bilketa egiteko

Egubakoitzean irekiko dute Santa Marina

MONIKA BELASTEGI

Zaharberritze lanak direla eta lazko uztailetik itxita egon eta gero, datorren egubakoitzean, hilaren 18an, zabalduko dute Santa Marina parroikia, Santa Marina egunarekin bat eginez. Inauguratu, berriz, domekan, hilaren 20an, egingo dute.

Xabier Azkoitia abadearen esanetan, nahiz eta inaugurazio ekitaldia domekan izan, egubakoitzean zabaltzeak badu bere arrazoia, hau da: "Egubakoitzean Santa Marina eguna izanik, ez dugu halako egunean eliza itxita egoterik nahi".

Hori horrela, datorren egubakoitzean Santa Marina eguna ospatzeko meza izango da, 19:30ean. Gainera, udalbatzak ere hartuko du parte mezan. Meza-aren ondoren, Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du. Horrez gainera, ekitaldi gehiago ere izango dira: hain zuzen ere, aste bukaera osoan barrena hainbat ekitaldi egongo dira San Joxepe elkartean eta zapatuan txirrindulari proba jokatu da. Domekan, berriz, inaugurazio ekitaldia egingo dute, 12:30ean, eta, besteak beste, Kultura sailburu Miren Azkarate eta Juan Mari Uriarte gogozaina etorriko dira.



Santa Marina egunean izaten den mezara udalbatza ere joaten da.

ARTXIBOA

Aurtengo udan ere atzerriko neska-mutikoak egongo dira herrian oporraldia pasatzen. Lau dira, eta familia banatan emango dute uda.

Errusiatik, Ukrainatik eta Saharatik hona, hemengo lau familiarekin uda pasatzera

E.M. / M.B.


Azkeneko urteotan moduan, aurtengo udan ere herriko hainbat familiak –lauk, hain justu ere– atzerriko umeak hartu dituzte etxean uda pasatzeko. Errusiako bi, Ukrainako bat eta Saharako beste bat etorri dira, eta irailera bitartean egongo dira hemen.

Vladimir Polorotov, Sergei Kulish, Nordin Jatri eta Bepa Spichka dira etorri diren neska-mutikoak. Errusia, Sahara eta Ukrainatik etorri dira, eta zortzi eta hamaika urte artean dituzte.

Irailera bitartean egongo dira Bergaran, bakoitza familia batean, eta etxean seme edo alaba bat gehiago izango dira. Umeok etxean hartu dituzten familien kasuan, bakoitzak izan ditzake arrazoi ezberdinak, baina nagusia, komunean dute: haur horiei oporraldi gozo, bero eta maitagarria eskaintzea. Izan ere, umezurtz-etxean bizi direlako edo euren herrialdearen egoera onezia ez delako, ez dute gainerako umeek moduan oporraldiaz gozatzeko aukerarik.

Hiru familiak Oñatiko eta Elorrioko GKEen bitartez ekarri dituzte neska-mutikoak, eta Bergarako Udalaren laguntza jasozten dute. Ume sahararra, berriz, Irungo Udalaren bitartez.

Neska-mutikoei oporraldi gozo, bero eta maitagarria eskaini nahi diete familiek



VLADIMIR POLOROTOV/ERRUSIA Bi aste daramatza Nuriarekin eta Fernandorekin, eta irailaren 4ra arte eurekin egongo da. Zortzi urte ditu eta umezurtz-etxe batean bizi da, Murmark-en. Bikoteari umeak asko gustatzen zaizkio, eta hori da Vladimir hartzeko arrazoi-etako bat. Irudian, udalekuetan egindako lana pozik erakusten du.




NORDIN JATRI/SAHARA Iaz Nordinen anaia, Sidi, egon zen Elsa eta Xabierren etxean. Irungo Udalaren bitartez ekarri dute Nordin (8 urte) eta irailera arte egongo da gure artean. Nordinek 5 anai-arreba ditu eta Amgalan bizi da, Aiunen. Martitzenean iritsi zen eta udalekuetan dabil, besteak beste, Josu eta Olaia lagun berriekin.



SERGEI KULISH/ERRUSIA Sergei ere Murmark-ekoa da, eta umezurtz-etxe batean bizi da. Zortzi urte ditu, eta bigarrenegoz dator Juan Antonioren etxera. Honek pozik asko hartzen du, haren hitzetan umeek haurtzaro zorionsua izatea delako gehien baloratzen duen gauzetako bat. Sergeik dio ondo baino hobeto pasatzen duela uda hemen.



BEPA SPICHKA/UKRAINA Hirugarren urtez etorri da Bepa (11 urte) Jabi eta Mirenen etxera. Hauen alaba Iratirekin eta haren lagunekin jolasean ibiltzea gustuko du, eta pena du kanpoko igerilekuri ez dagoelako aurtun. Abuztuaren bukaeran itzuliko da Kievera, eta hemendik hiru urtera Euskal Herrira ikastera etorri nahi du.



Zubiberri itxiko dute astelehenean

Astelehenean, hilaren 14an, itxi egingo dute Zubiberri zubitik-Citröen ondoan-San Blas auzo sarrerarainoko bidea. Udaltzaingoak jakitera eman duenez, ur kolektorea sartzeko lanak hasiko dira gune horretan eta hori da ibilgailuei bidea ixteko arrazoia.

Hori horrela izanik, han inguruan dauden lantegi eta baserrietara joateko Urarte kalea eta gero trenbidea hartu beharko dituzte ibilgailuek Udaltzaingoak adierazi duenez.

LABUR

Etzi, domeka, ohiko autoen bedeinkapena egingo dute San Kristobalen

Aurreko egubakoitzean hasi zituzten jaiak eta bihar, zapatua jarraituko dute San Kristobalgo ospakizunek. 23:00etan, erromeria egongo da Arkaitz Allurrekin. Etzi, domeka, meza nagusia izango da 12:00etan, eta gero, ohiko auto bedeinkapena. Ondoren, luntxa eta bertso saioa egongo dira. Jaiak bukatzeko, Haritz eta Enaitz trikitilariekin erromeria egongo da, eta umeendako jolasak.

Bi hilabetez itxita egon ondoren, eguaztenetik zabalik dago Urteaga kalea ibilgailuendako

Eguazten goizean ireki zuten Urteaga kalea ibilgailuendako. Dipeztazioak egin du Eskusarte harrobiaren arriskua neurtzeko azterketa eta haren arabera bidea zabaltzeko moduan dago. Behin behinako neurri moduan hormigoizko plakak jarri dituzte mendiarren kontra. Urteaga maiatzaren 10etik egon da itxita, harrobi zabarraren hainbat lur jauzi gertatu zirenetik. Antzuola eta Bergarako udalek bidea lehenbailehen zabaltzeko ahalegina egin dute.

Ume, gazte eta nagusi: herri osoa murgildu zen San Martzialeko jai giroan

MONIKA BELASTEGI

Ai!, San Martzial eguna. Domekan ezin hobeto, eta kontuak astelehenean.


Egun polita izan zen, ohi bezala. Eguraldia, gainera, portatu zen; ez euririk, ezta bero handiegirik ere. Gainerakoan, ekitaldiek euren martxa segitu zuten eta ez zen dantzarik, abesirik, kirolik ezta mezarik falta izan. Jan-edana ere franko, eta gauza guztien gaitetik, San Martzialgo zelaietan batutakoan alaitasuna.

Goizeko alboradaren eta gurdii igoeraren ondoren, 11:00etan meza nagusia izan zen ermitan. Mezaren ondoren, hamarretakoa egiteko tartetxoa hartu eta gero, dantza emanaldia egin zuten Xamatz dantza taldeko kideek, eta, gero, ohiko soka eta aureskua ikusteko aukera egon zen, baita Narbaiza eta Egileor bertsolarien saioa ere.

Bazkaldu ondoren, kirolen txanda iritsi zen, eta aurten ere jende askok hartu du parte. Horren aurretik, hainbat lagunek presoak ekarri zituzten gogora zelai erdian pankarta bat erakutsita. Sokatiraren kasuan, honako hauek izan ziren irabazleak, lehen postutik hirugarrenera, emakumezkoetan: Gu geuk, Pata-ta Tortila eta Zortzirak. Gizonnezkoetan, berriz, hauxe izan zen sailkapena: Artusamak, Xikuak eta Ug-endako.

Txingen kasuan, hauek izan ziren irabazleak emakumezkoetan: Rachael, Saioa Bolibar eta Edurne Zabala. Eta gizonnezkoetan: Iban Arizabaleta, David Martinez eta Bittor Alberdi.

Urtetik urtera jende gehiagok ematen du izena sokatiran eta txingetan parte hartzeko



Ohi bezala, jende ugari hurbildu zen Aureskua ikustera.



Sokara atera eta Aureskua egin zioten emakumeetako bat Lide Oregi izan zen.



Xamatz dantza taldeko kideek dantza erakustaldia egin zuten.




Narbaizak eta Egileorrek jardun zuten bertsotan goiz partean.



Aurpegia ezin alaiagoa, eta platerari erreparatuz gero, barraskiloak bazkaltzeko.



Ordu batetik aurrera jendeak ez dio erreparorik jartzen argazkian agertzeari.



AEBetatik etorri, eta txingak probatu barik ezin geratu. Irabazlea izan zen, gainera.



ASPALDIKO KARTELA

Munibe plazan dagoen kartel honetan zera irakur daiteke: "Se prohíbe arrojar basura y escombros en este callejón bajo la multa de 10 pesetas". Argi dago kartela aspaldikoa dela, kale kantoia orain dela urte batzuk kendu zutelako eta 10 pezetako isuna barregarria litzatekeelako gaur. Kartelak urte mordo dauzka eta oraindik ez dago Munibe plaza han dagoela adierazten duen kartelik... Aldaketa, noizko?



ERLOJUA, ORDUAN

Santa Marinako erlojua ez da orduan egon azken asteotan baina aste bukaerarako orduan jarriko dutela agindu digute parroko arduradunek. Erloju mekaniko zaharra kendu eta haren ordean erloju elektronikoa berri jarri dute. Bestalde, esferarik ez dagoen kanpandorreko alde bakarrean, hegoaldean (Zurradero aldera) esfera jartzeko ahalegina egin dute, baina hainbat arazoengatik baztertu behar izan dute ideia. Zaharberritzen ondoren, datorren egubakoitzean zabalduko dute Santa Marina eta ordurako orduan egongo da erlojua ere...



BEDELKARREKO ZOZKETA

Bedelkar herriko dendarien elkarteak martitzenean egindako zozketan honako hauek izan dira saritutako zenbakiak: 26.166, 30.012, 31.962 eta 61.547. Zenbaki bakoitzari 500 euroko erosketa bonoa egokitu zaio. Udako oporrak hasteko modu ezin hobea, ala?



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95



TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 BERGARA Tel.: 943 76 12 50

Zero kilometrokó autoen kopuru mugatuak: IBIZA, CORDOBA, FABIA, POLO, ... ZURE ZAIN DAUDE!




VOLKSWAGEN TOURAN berria:

- Sei aire-zaku, ABS, EDS, TCS, ESP
- Aire girotua, zazpi eserleku, xenona, nabigazioa
- TDi berriak; 105 eta 130 ZP
- Sei martxa



MINGAINARITIRAKA



Erik Lizarralde

KAFE TABERNAKO ZERBITZARIA

Erik Lizarralde antzuolarrak 19 urte ditu eta Miguel Altuna Institutuan Mekanizatu Bidezko Produkzioko modulua egiten dabil. Gainera, Kafe tabernan zerbitzari lanetan dihardu aste barruan, arratsalde. Primeran moldatzen da barran.

- Zure lanerako beharrezko dohaina?**
Jendearekin atsegina izan eta egun txarra tokatzen denean piska bat faltsua izatea. Aktore sena beharrezkoa da batzuetan...
- Laneko gauzarik onena eta txarrena?**
Onena, jendea ezagutu eta dirua irabazten dela. Txarrena, lotura handia eskatzen duela tabernak...
- Lan egiteko ordutegirik onena?**
Goiza, arratsaldea libre izateko.
- Zein da ondoen prestatzen duzun edaria?**
Kafeak eta ondo prestatzen ditudala esaten dute....
- Tabernako lanik atsegina? Eta zailena?**
Gauetan, jende asko dabilenean, gustura ibiltzen naiz.
- Zailena? Batzuetan dena garbi eta txukun izatea.**
- Zu zeu parranda zalea zara? Gustuko edari bat? Herri bat?**
Parranda zale latza naiz. Kalimotxo. Elgoibarko giroa.
- Eman arrazoi on bat Antzuolako jaietara joateko?**
Oso jende jatorra eta primerako giroa dagoela, euskalduna.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna?**
Beti laguntzeko prest egotea. Era berean, itxuragatik edo esaten duenagatik inor ez kritikatzeko.
- Emakume batengan zertan ohartzeko zara lehenbizi?**
Aurpegian, eta batez ere begietan.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**
Mendira joan, parrandan ibili, lagunekin egon...
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?**
El señor de los anillos (Tolkien)/Braveheart/La caja de pandora.
- Urtaro bat?**
Uda, neskak bikinian ikusteko aukera dagoelako eta nire urtebetetze eguna delako.
- Zer egingo duzu abuztuko oporretan?**
Ahal baldin badut, hemen inguruko jai denetara joan.
- Bidaia bat nora egingo zenuke? Zeinekin?**
Hawaira joango nintzateke gustura, neskalagunarekin.
- Armstrongek bere bosgarren Tourra irabaziko du?**
Baietz uste dut.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

KARLOS ALDAI

23 URTE / IKASLEA / KARLSRUHEN (ALEMANIA) BIZI DA

“Erasmus beka bati esker etorri nintzen, eta hor nabil, Biologia ikasketak amaitu nahian”

EDU MENDIBIL

Erasmus beka bati esker, iraila ezker Karlsruhen dago Karlos Aldai. Biologia ikasketak amaitzen dihardu. Lehendik ere ezagutzen zuten Alemania, orain dela hiruzpalau urte Heidelberg egon zen eta, hamar hilabetez. Orain gustura dago Karlsruhen: “Horixe nabil, Biologiako ikasketok amaitu nahian. Nire kasuan, behintzat, Erasmusko ikasle izateak alde batetik bestera tontoaren pare ibiltzea ere esan nahi duela konturatu naiz, baina gustura nabil. Aleman pixka bat ez bada ere, beti ikasten da zerbait”.

Izan ere, ikasteaz parte, jateixe baten lanean dabil Karlos: “Batez ere Euskal Herriko produktueta oinarritzen den Lizarran jateixeen kateko baten nabil.

“Euskal Herriko produktueta oinarritzen den jateixe baten nabil lanean”

Alemaniko lehen katea da, eta hor ibiltzen gara, txistorra muturrak, txakolinak, eta abar ateratzen. Amaren tortilla eta aitaren txistorren modukorik ez dago, baina ez dago batere gaizki jateixe. Jende asko etortzen da”.

Karlsruhe Alemaniako hegomendebalean dago eta hiri garrantzitsua da: “Hiri lasaia da, lasaiegia askotan. Bertako gazteluen inguruan eraikitako hiri berria da. Industria aldetik oso indartsua eta kultura aldetik ere hiri garrantzitsua. Inguruan berdegune asko dituen hiria da. Gu bospasei kilometrorra dagoen Pfnztal araneko Söllingen herritxoan bizi gara, eta lanera edo unibertsitatera ez bada, ez naiz Karlsruhera gehiegi etortzen”. Beste hiru lagunekin bizi da Karlos: Rober (Gijongoa), Mari (Santia-

gokoa) eta Upi (Madrilgoa): “Batzuk Söllingeko gaztetxeak moduan ezagutzen gaituzte. Egia esateko, nahiko bizimodu lasaia eta etxeokoa daukagu”. Alemaniako bizimoduaz zera diosku: “Ez da bizimodu merkea. Denean moduan, hemen ere norberaren aukeretara moldatu beharra dago. Zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta diru gehiago poltsikora, eta gastatzeko denbora laburragoa dagoenez... Hor gabilta, ea Volkswagen zahar bat erosteko lain aurrezten dugun-edo...”.

Alemanen gainean iritzi ona du: “Nire ustez, oso jende egiazalea da, bai onerako eta bai txarrerako. Nirekin, behintzat, beti oso ondo portatu izan dira. Herri aberatsa eta ondo antolatutakoa da Alemania. Nahiz eta euren kultura nahiko etxeokoa den, hasi dira beste bizimodu batzuetara ohitu eta horiei gustua hartzen”.

Beste denboralditxo batez Alemanian segitzeko asmoa dauka Karlosek: “Udan hemen geratuko naiz, ikasketak bukatzen eta lanean. Irailean pare bat asteanedo oporrak hartuko ditut eta San Martinetarako Bergarara joateko asmoa daukat. Lagunak bisitan etorri zaizkidan? *Parasito* batzuk agertu izan dira, bai. (Barreak). Udan ere baten batzuek badaukate asmoa hona etortzeko, *tabarra* pixka bat ematera. Hala ere, ez dakit azkenean ez diren Benidormera joango... Nik dagoeneko garagardoak freskatzen jarrita daukat...”.

Astelehenean, hilaren 14an, 24 urte egingo ditu Karlosek. Aldez aurretik, zorionak!



CLINICA DENTAL BERGARA

Odontologia helduendako eta umeendako

Hortz-protesiak

Inplanteak

Hortz-estetika

FINANTZAKETA PERTSONALIZATUA
Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón,
Guía Azul de la salud, Dentired, Fremap eta Aresa.

ELBARRITUENDAKO SARBIDEA

Bidekurutzeta 36 behe. Bergara. 943 76 05 77



Antxintxika Debagoienak distantzia ertaineko Euskadiko Triatloi Txapelketa irabazi zuen Zarautzen.

ARTXIBOA

TRITLOIA

Kortabarria, Rementeria eta Zuzaeta Austriako Ironman proban izan dira

Antxintxika Debagoiena Taldeko zortzi lagunek Klagenfour-eko proba egin zuten

EDU MENDIBIL

Antxintxika Triatloi Taldeko zortzi lagunek parte hartu zuten Klagenfour-eko Ironman proban. Astebete eman dute Austrian, eta domekako probaren ostean itzuli ziren Bergarara.

Antxintxika taldeko zortzi lagun izan dira Klagenfour-en, Kärnten probintzian, Austria hegoaldean. Aurreko martitzenean, hilaren 1ean, joan ziren furgonetan Austriara, eta martitzenean itzuli ziren. Probaren aurreko egunetan gogor entrenatu ziren eta domekan izan zuten Ironman proba beldurgarria: 3.800 metro igerian hango laku baten, 180 metro bizikletan eta maratoiko distantzia (42,195 Km) korrika.

Julen Garitano antzuolarra izan zen taldeko onena Austria-

ko proban, 89. postuan (9 ordu, 20 minutu eta 16 segundo), eta bergararrei dagokienez, Joseba Zuzaeta 184. postuan sailkatu zen (9:45:05) eta Aritz Kortabarria 345.a izan zen (10:16:54). Aitor Rementeriak, berriz, proba utzi behar izan zuen maratoiko 25. kilometroan, hanketan mina zuela-eta. Esperientzia gazi-goza izan da Aitorrendako: "Fisikoki ondo nengoen, eta arantza bat geratu zait proba amaitsu ez nuelako. Hala ere, esperientzia ederra izan da. Oso giro ona egon zen probaren egunean. Hango para-jeak zoragarriak dira, 80.000 ikusle inguru elkartu ziren eta Austriako telebistak zuzenean eskaini zuen proba. Antolaketa bikaina izan zen".

Ironman proba egin ondoren, Austrian egon zirenek atsedean hartzeko asmoa daukate. Denboraldi bikaina egin du taldeak

orain arte, Zarauzko Triatloian taldekako lehen postua eskuratu zuen-eta Antxintxikak.

ALBERDI, HAMALAU GARREN DONOSTIAN Unai Alberdi 14. postuan sailkatu zen ekainaren 29an Donostian jokaturako triatloian. Partaideek 1.500 metro igerian, 40 bizikletan eta 10 korrika egin behar izan zituzten. Alberdi 8.a izan zen igeriketa proban eta txirrindulari lasterketa 6. tokian bukatu zuen. Korrika probaren ondoren, esan bezala, 14. tokian geratu zen. Bi ordu, 15 minutu eta 51 segundo denbora markatu zuen. Rikardo De Goñi 33. postuan sailkatu zen (2:22:03) eta Xabier Uribesalgo 155. postuan iritsi zen helmugara, 2:39:32ko denborarekin. Donostiako Triatloian 400 partaide inguru izan ziren eta Craig Watson izan zen irabazlea 1:58:34 denborarekin.

Nesken finalak gaur Ipintzan eta Futbol 11koa azken txanpan

E.M.

Gaur, egubakoitza, nesken finalak jokatu dira Ipintzan. Lehenbizi, 18:30ean, A mailako finala jokatu da Arlotek eta Soraluze A taldeen artean eta jarraian, 19:30ean, senior mailako finala jokatu da: Potzu ta Zapaburuak eta Ogizun taldeak izango dira aurrez aurre. Ondoren, sari banaketa egingo da.

FUTBOL 11KO FINALA HILAREN 18AN

Bestalde, gizonen Futbol 11ko txapelketako azken partiduak jokatu dira hurrengo astean. Atzo, eguna, erabakitzea zen

zein talde igaroko ziren finalerdietara. Lehenbiziko finalerdia astelehenean, hilaren 14an, jokatu da Ipintzan, 19:30ean eta hurrengo egunean, martitzenean, ordu berean, beste finalista erabakiko da. Finala hurrengo egubakoitzean, hilaren 18an, jokatu da, 19:30ean hasita.

Beteranoen mailako finalerdi, Mongatxurak taldeak 3-1 irabazi zion Guipuzcoana taldeari egubakoitzean. Aurretik, hirugarren posturako partiduan, Txipironek eta A Ze Flaxak launa berdindu zuten eta penalti jaurtiketan Txipironekoak nagusitu ziren.

Arantzabal-Varela bikoteak Marotias saria irabazi du

E.M.

Unai Arantzabal eta Kepa Varela gazte mailako txirrindulariek domekan Ordizian jokaturako Marotias Memoriala irabazi zuten. Bikoteka erlojuz kontra jokatu den proba da Marotias Memoriala, eta bergararrek egin zuten denbora onena ibilbideko 26 kilometroetan. Varela eta Arantzabalek 33 minutu eta 40 segundoko denbora markatu zuten helmugan. 15 bat bikotek jardun zuten txapelketan eta Arantzabal-Varela bikotea nagusitu zen. Unai lehen urtea du aurreko gazte mailan, eta Kepak biga-

rren urtez dabil gazteekin lehiatzen. Biek hala biek Lokatza-Bicicicidación Igartua taldean dihardute.

DATORREN ZAPATUAN, BERGARAN

Varela eta Arantzabalek parte hartuko dute datorren zapatuan, hilaren 18an, Bergaran jokaturako Santa Marina Sarian. Lasterketa 16:00etan hasiko da eta txirrindulariek 98 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Antolatzaileek egindako kalkuluen arabera, 18:30ak aldera amaituko da proba San Lorentzoko helmugan. Aurtengoa lasterketaren hamabigarren aldia izango da.




GIPIZKOAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Arantzabalek eta Varela lasterketa bikaina egin zuten Ordizian.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16 urte** bete aurretik!
Eta **autoarena** **18 urte** bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

PIRAGUISMOA

Beti-Bustik taldekako 5. postua lortu zuen Espainiako Txapelketan, Seo D'Urgellen

Markel Agirre abuztuaren 30ean Espainiako junior mailako selekzioarekin arituko da Metz-en

E.M.

Bergarako Beti-Busti piraguis-
mo taldea bosgarren postuan
saillkatu zen joan zen ekaina-
ren 29an Seo D'Urgellen
jokatutako Ur Bizietako
Espainiako Txapelketan.
Taldeko zazpi lagun izan ziren
Lleidan.

Senior mailako proban Eneko
Iturrospe 12. tokian saillkatu zen
Seo D'Urgellen. Junior mailan,
berriz, Markel Agirrek 4.postua
eskuratu zuen eta Iraitz Artolak
eta Lierni Errastik ez zuten fina-
lerako saillkatzerik izan. Kadete
mailan, Martxel Alberdi 6. tokian
geratu zen, Ibon Etxezarreta 7. eta
Markel Cestafe finaletik kanpo
geratu zen.

Esan bezala, taldekako bos-
garren postua lortu zuen Beti-Bus-
tin Lleidan. Iñaki Gallastegi *Kuxi*
taldeko entrenatzaileak zera adie-
razi digu: "Pozik nago taldeak lor-
tutakoagatik, kalitateak oroko-
rean gora egin duelako eta tal-
de onenekin batera lehiazteko

gauza garela erakutsi dugulako.
Hala ere, pena daukat gure pira-
guista batzuk, huts txiki batzuen-
gatik, finaletik kanpo geratu dire-
lako".

Astebete lehenago, Irunen,
emaizta aipagarriak lortu zituz-
ten herriko piragunistek: taldeka-
ko saillkapenean hirugarren
tokian geratu ziren eta banaka ere
onenen artean izan genituen.
Eskola Kiroleko teknifikazio saio-
an Leire Fernández izan zen ira-
bazlea. Kadete mailan, Markel
Cestafe 7.a izan zen, Martxel
Alberdi 8.a eta Ibon Etxezarreta
9.a saillkatu zen. Junior mailako
proban Markel Agirrek 3. postua
lortu zuen eta Iraitz Artola 5.a izan
zen. Senior mailan, Eneko Itur-
rospe 7. tokian saillkatu zen eta
beteranoetan Iñaki Gallastegi
bigarren.

IKASTAROAK


Beti-Bustik adin guztiendako
piraguisimo ikastaroak antola-
tzen ditu. Interesatuek 667 60 09
47 (Iñaki) telefonora deitu deza-
kete argibide eske.



BETI-BUSTI

Markel Agirre laugarren saillkatu zen junior mailako proban eta Espainiako selekzioarako deitu dute.

FOTOKIROLA



**Hurtado- Izquierdo
txapeldun**

Jose Izquierdo eta Candido
Hurtado arrasatearrek 25-18
irabazi zieten Carmelo Bar-
cala eta David Bellanco berga-
rarrei zapatuan Angiozara-
ren, Frontenis Txapelketako
finalean. Bestalde, hiruga-
rren posturako partiduan,
Iñaki Sánchez eta Kepa Gar-
cía arrasatearrak Xabier Albi-
sua eta Patxi Vallejo berga-
rarrei nagusitu zitzaizen, 25-
20. Ugartebururen argazkian,
saritutako bikoteak, zapatu-
ko partiduen ostean.

Bergarako bost lagun Aizkorriko mendi maratoian

E.M.

Bergarako bost lagunek hartu
zuten parte domekan II. Zegama-
Aizkorri Mendi Maratoian. Par-
taideek 42 kilometroko ibilbidea
izan zuten domekan, tartean
Aratz, Aizkorri, Aketegi eta
Aitxuri mendiak igo zituztela.
Joxean Kerexeta Lizarazu izan
zen herriko onena, 48. postuan, 5
ordu, minutu bat eta 46 segundoko
denborarekin. Xabier Lijó Pérez
193.a izan zen (6:00:45), Jose Igna-
zio Balentziaga Larrañaga 207.a
(6:10:07), Igor Labaien Olasolo
229.a (6:27:06) eta Jose Maria Urze-
lai Albizu 249. postuan iritsi zen,

6:43:27 markarekin. Guztira, 291
lagun iritsi ziren helmugara. Ira-
bazlea Fernando García Herreros
izan zen, 4:08:44 denborarekin.

MENDIZALEEN IRTEERA HILAREN 20AN
Pol-Polek eta Gorla Alpinok hila-
ren 20an Lojara eta Valderejora
joateko irteera antolatu dute. Irte-
era 08:00etan egingo da, Frontoi-
tik. Txartelak Pol-Pol tabernan
salgai daude.

Bestalde, Pol-Poleko bulegoa
itxita izango da abuztuaren eta tra-
miteak egiteko azken eguna uztai-
laren 15a izango da. Argibideak
943 76 48 51 telefono zenbakian jaso
daitezke.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



lbargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Miren Aranbururen ahotsa eta Jean Louis Hargous-en doinuak euskal-jazza egiten

Miren Aranburu Ensemble jazz taldea gaur Espoloian

MONIKA BELASTEGI

Udako Gauak kultura eskaintzaren barruan, bigarren jazz emanaldia izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espoloian. Miren Aranburu eta Jean Louis Hargous-ek sortutako Miren Aranburu Ensemble taldeak egingo du emanaldia.

Miren Aranbururen ahotsa eta Jean Louis Hargous-en doinuak ditu ardatz Miren Aranburu Ensemble taldeak. 1996an hasi ziren eta aipatutakoez gain, pianoak, kontrabaxuak eta bateriak osatzen dute taldea. Orain arte gutxi ikertutako sorkuntza bidea jorratzen dute, eta jazzaren lengoia modernoa, inprobisazio musikala eta euskara uztartzen dituzte.

Miren Aranburu ez da aurpegi berria euskal kantagintzan. Lehen diskoa 1977an argitaratu zuen, eta orduko kanta berrien tankerako piezak abesten zituen. 1980. hamarkadan, berriz, jazz mundura gerturatu zen, Jean Louis Hargous musikagilea ezagutu eta gero. Jean Louis Hargous-i dagokionez, saxofoi jotzailea da; sei disko kaleratu ditu eta konpositore gisa, jazzetik musika elektroakustikoraino doan bide oparoa landu du.

'GORRI ISILA' DISKOA

Elkarlanaren lehen fruitua *Etor-kizunaren memoria* izeneko diskoa izan zen, 1996an. 2002an, berriz, Errabal euskal jazz ziguila estreinatu zuten, *Gorri isila* diskoarekin. Eta horixe da, hain justu, gaur gaueko emanaldian eskainiko dutena. Diskoak hamabi kantu ditu, eurenak bederatzi, eta hiru, euskal kanta ezagunen bertsiu modernoak. Eurak sortutako abestien kasuan, hitzak



Miren Aranburu *Goenkale* saioan ikusteagatik ere egiten zaigu ezagun.

ARTXIBOA

Jazzaren lengoia modernoa, inprobisazioa eta euskara batzen dituzte

Miren Aranbururenak dira eta doinuak, aldiz, Jean Louis Hargous-ek sortu ditu. Besteak beste, honako kantuek osatzen dute diskoa: *Gure panpoxa*, *Zibilak esan naute* (J.M. Iparragirre), *Bioleten negua* eta *Gau bateko poza*.

'Gorri isila' izeneko diskoa aurkeztuko du Miren Aranburu Ensemble taldeak gaur

Taldearen sortzaile Aranburu eta Hargous diren arren, zuzeneko emanaldietan musikagile gehiagorekin lagunduta jarduten dute.

Saioa gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Espoloian.

Edu Muruamendiarazek lan berria estreinatuko du bihar Kursaal

MONIKA BELASTEGI


Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak lan berria estreinatuko du bihar, zapatua, 12:00etan, Kursaal. Donostiako Antzerki Feriaren barruan egingo du emanaldia eta ondoren, estatu osoan barrena jardungo dute lan berriarekin.

Izena duen guztia omen da du izena Edu Muruamendiarazek sortutako azken koreografia horrek, eta euskal mitologian oinarritzen da. Ikuskizun bakoitzarekin egiten duen bezala, berri-tzailea da azken hori ere, eta dan-

tza tradizionala eta garaikidea uztartzen ditu.

HAMAR DANTZARI, ZUZENKO MUSIKA ETA DIAPOSITIBEN LAGUNTZA

Hamar dantzari hartzen dute parte ikuskizunean eta aurreko ikuskizunean bezala -Sutargi-zuzeneko musikak indar handia emango dio koreografiari. Horretarako bost musikariren laguntza izango du taldeak, eta besteak beste, Kepa Junkera edo Pascal Gaigneren doinu tradizionalak egingo dituzte. Bestalde, ikuskizunaren lagungarri izaki mitologikoak irudikatzen dituzten diapositibak emango dituzte.



Edu Muruamendiaraz.

ARTXIBOA

Aritzeta emanaldia egingo du Santa Marina egunean

MONIKA BELASTEGI

Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, Santa Marina eguna ospatzeko ekitaldien barruan. Emanaldia parrokiaren izango da, 19:00etako meza nagusia bukatu eta gero.

Santa Marinako jaien egitarauaren barruan egingo du emanaldia Aritzeta abesbatzak. 19:00etako meza nagusiaren ondoren izango da, eta abesbatzak sei lan abestuko ditu.

Imanol Urzelai Aritzeta abesbatzaren zuzendariak esan duenez, horixe izango da oporrak

diaren aurretik egingo duten azkeneko emanaldia. Dena den, badihardute ikasturte berrirako kontzertu egitaraua prestatzen.

EMANALDIK HERRIAN ETA HERRITIK KANPORA

Ikasturtean barrena hainbat emanaldi egin ditu Aritzeta herrian zein Bergaratik kanpo. Imanol Urzelai, Aritzeta abesbatzaren zuzendariak, hiru aipatu dituzte, Aste Santuan, Madrilin egin zutena, hango Euskal Etxeak gonbidatuta; bestea, Bartzelonan, XI. Musicoral topaketen barruan egin zutena, eta hirugarrena, ekainaren 28an Mundakako jaietan egindakoa.

Egitaraua

'Shenandoah' (J. Erb)
'El Abanico' (J. Trayter)
'The lion sleeps tonight' (J. Dominguez)
'Lo adi aingüria' (F. Escudero)
'Carnavalito quebradeño' (Virtu Maragno)
'An Irish Blessing' (Duson)
Zuzendaria: Imanol Urzelai



Segovian ere egin du emanaldia Aritzeta abesbatzak.

ARTXIBOA

KULTURAPILULAK

Azken egunak Jardunek antolatutako Txalaparta ikastaroan izena emateko

Jardun euskara elkarteak Txalaparta ikastaroa antolatu du uztailera. Uztailaren 14an hasi eta 18ra arte iraungo du ikastaroak. 18:00etatik 19:30era bitartean. Beraz, interesatuek azkeneko egunak dituzte izena emateko.

Elkarteko bazkideek sei euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, zortzi euro. Izena Jardun elkartearen bulegoan eman beharko da edo 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietan.

Domekara arte zabalik Beart elkarteak ikasleek kultura etxean duten erakusketa

Aurreko egubakoitzean zabaldu zuten Beart elkarteak ikasleek margo erakusketa kultura etxean eta domekan bukatuko da.

Erakusketaren ordutegia honakoa da: astelehenean, egubakoitzean, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatua, 12:00etatik 14:00etara.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11 / 165. zenbakiaren gehigarri berezia



JAIKAK03

JATORRIZKO ARGAZKIA: AINTZANE IRIZAR

**Doitasunezko
trokelak**
TROKELAY, S.A.



ELAY Taldea



Ebaketa zehatza
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

Zerbitzuak
ELAY, S.L.



**Gainmoldaketak
eta tratamenduak**
SEYTRA, S.A.
CELAY, S.A. C.V.


ATREBENTZIAEZPADA/ Jaixetan ze gustatzen jatzu gehixen? Eta gutxien?

ALAITZ URKIOLA
9 urte

Barraketan ibiltzia; iaz autotxokiak egon ziran, eta asko gustatzen jat. Buruhaundixak be asko gustatzen jat. Gutxien, berriz, jolasparkia; oso umiendako da.

USOA TOLEDO
11 urte

Musikia, dantza egittia; gainera, aurten Gurutz DJa dator, eta asko gustatzen jaku. Jolasparkia be gustatzen jat, batez be, *kart*-ak. Egixa esan, jaixetan dana gustatzen jat.

GORKA ETXEZARRETA
10 urte

Barrakak; batez be, autotxokietan ibiltzia gustatzen jat. Barraka gutxi etortzen dira, baiña... Buruhaundixak be gustatzen jat. Ez dago jaixetan gustatzen ez jatenik.


GOIURI AZKARATE-ASKASUA
8 urte

Barrakak eta jolasparkia gustatzen jat; batez be, ohe elastikuak. Ume txikixen barrakak, berriz, ez jat gustatzen, ez dira guretako modukuak, txikixaguendako dira.

BINGEN ALKORTA
8 urte

Oporretara jutia; jaixetan, gehixenetan, kanpora jutun gara oporretara. Arkira, mendira jutun gara, eta horixe da gehixen gustatzen jatena jaixetatik.

ALKATEARENAGURRA/ Jose Anjel Zabalo



Legealdi berriari ekin diogunean, Udal hau aurrera eramateko guri emandako konfiantza eskertu nahi dugu; ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

Urtebete pasatu ondoren, hemen ditugu berriz ere herriko jaiak; ahaztu gaitezen eguneroko lanekin eta goza ditzagun denok elkarrekin beharrezko ditugun jai hauek.

Jai batzordeari eskerrak eman nahi dizkiot, haren lanagatik izan ez balitz ez genituelako izango ekitaldi hauek.

Azkenik, agurtu nahi ditut arrazoi ezberdinengatik gure artean egongo ez direnak, eta jaiak ahal duzuen ondoen ospatzera animatzen zaituztet.

FOTOZAHARRA

Mairuaren Alardea, orain dela 50 urte

Aurten beteko dira 50 urte honako argazki hau atera zutela. Egia esatearren, badirudi ez dela askorik aldatu alardea ordutik hona: kanoiak, herriko soldaduak, elizpean jende mordo alardea ikusten... Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerreko aldetik hasita: Gregorio Agirre, Mariano Iparragirre, Antonio Etxezarreta eta Lizarralde.



fbs
Informatika
aholkulariak

> Gremio guztietarako neurria egindako programazioa
> Ekipo osoa instalatuko dizugu

ONDO IBILI JAIETAN!

Eguzki auzoa 5, behea. Antzuola. Tel.: 943 76 65 13. Faxe: 943 76 65 14

TXOMIN GARAJEA



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel. 943 78 70 77

ONDO PASAU!

Ainhoa
drogeria

ONDO IBILI JAIETAN!

Kalebarren 13, ANTZUOLA
657 72 39 82



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

EGITARAUA

EGITARAUA

Domeka, 13

09:30 TXIRRINDULARI lasterketa. LVIII. Antzuola saria. Iñaki Leteren oroimenezko XI. lasterketa.
11:30 MEZA NAGUSIA. Bergarako Erretiratuen Abesbatzak abestuko du mezan.
 Mezaren ondoren, kontzertua eskainiko du abesbatzak elizan bertan.
14:30 ERRETIRATUENDAKO BAZKARIA. Udal Pilotalekuan. Horren ondoren, erromeria izango dute pilotalekuan bertan.

Eguena, 17

10:30 Umeendako JOLASAK Udaleku Irekietako begiraleekin.
13:30 Umeen HERRI BAZKARIA Herriko Plazan.
15:00 Umeendako JOKOAK Herriko Plazan.
18:00 Jaien hasiera iragartzeko TXUPINAZOA eta KANPAIAK. Horren ondoren, TXISTULARI TALDEAREN eta BURUHANDIEN kalejira.
19:30 Salbea. Antzuolako Abesbatzak Alfonso Ugarteren Salbea abestuko du.
20:15 Oinarin-eko umekin IKURRIN DANTZA. Antzuolako bandera eta Ikurrina jasotzea. UDALBATZAREN AURRESKUA, Oinarin-ek lagunduta.


20:30 TRIKI-BERTSO poteoa.
22:00 BIDUSOUND. Gurutz Muguruza DJaren saioa Herriko Plazan.
00:00 Suzko zezena Herriko Plazan.
00:30 BIDUSOUNDen saioa plazan.

Egubakoitza, 18

10:00 Txistulari taldearekin GOIZERESIA.
10:55 Txupinazoa.
11:00-13:30 Umeendako JOLASPARKEA Herriko Plazan.
11:30 Meza nagusia.
12:30 BERTSO SAIOA Zurrategin, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariekin.
15:30-18:00 Umeendako JOLASPARKEA Herriko Plazan.
19:00 ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK plazan.
20:00 ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN saioa Zurrategin.
23:00 TXAPELPUNK, CAÑERIA 13 eta DESKONTROL taldeen kontzertua plazan.
05:00 TXOKOLATE JANA txosnetan.

Zapatua, 19

10:00 Txistulari taldearen GOIZERESIA.
10:55 TXUPINAZOA kanoiekin.
11:30 KULKI taldearekin arrantzarekin



EGUENEAN, UDALBATZAREN AURRESKUA.



EGUENEAN, UMEEN DANTZA SAIOA.

lotutako JOLASAK, umeendako.
11:30 Bergarako Udal MUSIKA BANDAren kalejira.
12:30 Bergarako Udal MUSIKA BANDAren kontzertua Zurrategin.
18:00 MAIRUAREN ALARDEA.
19:00 OINARIN taldearen dantza saioa.
19:30 HERRI OLINPIADAK Zurrategin.
22:30 KRESALA orkestra Herriko Plazan.
22:30 PILOTA partiduak Udal Pilotalekuan: Berraondo-Berna/González-Auxkin eta Capellán-Rai/Xala-Elkoro.
00:00 SUZKO ZEZENA plazan.
00:30 KRESALA orkestraren saioa plazan.

Domeka, 20

12:30 INCANSABLES txarangaren kalejira, Errekalden hasita.
12:30 Elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA eta dastatzea.
12:30 ESKALATZAILEAK elizako kanpandorrera igoko dira.
14:30 HERRI BAZKARIA presoen alde.
16:30 INCANSABLES txarangaren saioa Herriko Plazan.
18:30 BIELORRUSIAKO ZIRKUA plazan.
20:00-21:00 EGAN taldearekin dantzaldia.
22:30-01:00 EGAN taldearekin dantzaldia.
01:00 INCANSABLES txarangarekin saioa, eta jaien amaiera.

Aurpegiko azala garbitzea
 ●
 Depilazioa
 ●
 Depilazio elektrikoa
 ●
 Aurpegiko tratamenduak
 ●
 Manikura-pedikura
 ●
 Makillajea

Ileapaindegia

Lois

Edertze aretoa

Errekalde 2.
943 78 71 37
ANTZUOLA

Zorionak denoi!

ANTZUOLA
 Apainketak eta isolamenduak
 Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
 676 997 400
 Biltegia: 943 78 70 40

EAJ PNV

Jai zorientsuak opa dizkizuegu antzuolar guztioi!
 Ondo pasau Antzuolako jaixak!

ANTZUOLAKO EAJ

Ana Etxeberria

Kirol masajista • Osteopatia • Esku terapeuta
 Linfodrenagista • Kiropraxia

Errekalde 6 behea. Tel: 943 76 60 13. ANTZUOLA

DESKARGA AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
 Tf. 943 76 62 75

MUSIKA

Adin eta gustu guztiendako musika emanaldiak

Zazpi talde eta bakarlarik osatzen dute aurtengo jaietako musika eskaintza

MONIKA BELASTEGI

Eguenetik domekara arte denetariko musika saioak entzuteko aukera egongo da jaietan. Guztietara hurbildu edo aukeraketa egitea norberaren esku dago. Eskaintza hor dago.

Musika sorta hori Bidusound DJak zabalduko du, eguenean, plazan, 22:00etan. Bidusound Gurutz Muguruza legazpiarraren izen artistikoa da. Orain dela hamabi urte hasi zen tabernetan eta pubetan DJ lanetan. Azken lau urteotan ezkontzetan eta disko festetan ere jardun du. Denetariko musika jartzen badu ere, entzuleen nahiak oso kontuan hartzen ditu.

Egueneko emanaldian etenaldia egingo du 00:00etan, suzko zezena dela-eta. 00:30ean jarraituko du emanaldiarekin.

Egubakoitzean, berriz, musika herrikoia entzuteko aukera egongo da Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa taldearekin. Txalaparta, trikitixa, baxua, perkusioa eta txirula darabilte emanaldietan. Zurrategin izango da, 20:00etan.


Bigarren musika talde bat ere egongo da egubakoitzean: Txapelpunk taldea, hain justu, 23:00etan, Herriko Plazan. Taldearen arima Iñigo Txapel kantaria da, Etsaiak taldean jardundako lekeitiar ezaguna. Klean dituzten bi diskoetako *-Txapelpunk* eta *Bla bla bla bla bla bla*. *Stop-* kantuak joko dituzte kontzertuan.

BANDAK, INCANSABLES-EK ETA EGANEK, EZIN HUTSIK EGIN


Zapatuan Bergarako Udala Musika Banda etorriko da herrira. 11:30ean, kalejira egingo dute eta 12:30ean, kontzertua Zurrategin. Zuzendari lanetan, ohi bezala, Alfredo González Chirlaquek jardungo du.

Iluntzean, berriz, Bilboko Kresala orkestrak egingo du emanaldia, 22:30ean, Herriko Plazan.

Domekan Incansables txarangaren bisita izango dugu. 12:30ean hasiko dira kaleak alaitzen eta 16:30ean, saioa egingo dute Herriko Plazan. Era berean, eurek emango diete amaiera jaiari, 01:00etan. Horren aurretik, baina, Egan taldearekin dantza egiteko aukera egongo da, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 01:00etara, plazan.



Egubakoitz gauean Txapelpunk taldearen kontzertua izango dugu Herriko Plazan, 23:00etan.



Txalaparta bultzatzeko sortu zuten Zumarragan Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa.



Antzuolako udala

www.antzuola.com

**Antzuolako Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue!**

Bereziki zapatu arratsaldeko seietan egingo den
Maiuaren alardera gonbidatu nahi zaituztegu.

Zatozte!

Jose Luis
Zabalo



Ondo pasau
jaixak!

ZAHAR BERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak **Eta orain.... GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tel.: 943 76 60 89. Faxe: 943 76 60 14.

ZIRKUA

Zirku Mundiala etorriko da domekan Bielorrusiatik

Magia, gimnasia eta pailazoen ikuskizuna izango ditugu Herriko Plazan

Herriko Plazan,
18:30ean

**Domeka,
uztailak 20**

AINZANE IRIZAR

Zirkua izango da jaietako ekitaldi berezietakoa. Bielorrusiatik datozkigu, eta era guztietako ikuskizunak eskainiko dizkigute domeka arratsaldean.

Zortzi artistak osatzen dute Bielorrusiako zirkua. Ez pentsa karpa horietako bat jarriko dutenik plazan. Hori bai, ikuskizun itzela eta ezohikoa eskainiko digute jaietako domekan: oreka-jokoak egingo dituzte, pailazoak izango ditugu, gimnastak... Animalia ikusgarriak ez, baina, gainerakoan, zirku emanaldi ikusgarria ekarriko digute Bielorrusiatik.

Antzuolara datozen lehendabiziko aldia da honako hau, baina ez da Euskal Herrian jardungo duten lehen aldia. Orain dela lau urtetik urtero egiten digute bisitalditxoak: Ordizian, Urnietan, Mutrikun... Euskal Herriko txo-



Karparik ez, baina ikuskizun mundiala ekarriko digu Bielorrusiako zirkuak.

ko askotan lan egindakoak dira bielorrusiar horiek. Gainera, taldekideak gazteak diren arren, esperientzia handiko artistak dira: urte asko daramatzate zirkuan eta gimnasia.

Taldekideak oso gazteak diren arren, esperientzia handiko artistak dira: urte asko daramatzate lanean

GIMNASIA ETA INDARRA

Salaueu anaiek gimnasia eta indar erakustaldia egingo digute. 27 urteko anaia bizkiak dira Salaueutarrak. Heziketa Fisikoko ikasketak egin zituzten biek, eta

gimnasta profesional izan nahi duten neska-mutikoen irakasleak dira gaur egun. Eurak ere hainbat gimnasia txapelketatan parte hartutakoak dira, baita hainbat sari irabazita koak ere.

Bestalde, zirkuetan oso ohikoa ez den arren, gimnasia erritmikoko erakustaldia ere ikusi ahal izango digu: uztaiarekin jardungo du Sofia Staravoitiak; gimnasia erritmikoan urtetan ibilitakoa da.

PAILAZOAK ETA MAGIA

Eta, zirku baten ezin falta pailazorik, ezta? Bi pailazo izango ditugu: bata, Conchar, oreka-jokoak egiten dituen pailazoa; bestea, berriz, Aleh Nialubin, umeen eta ez hain umeen irribarrea ekarriko digun pailazoa. Bielorrusia eta Errusia osoan oso ezaguna da Nialubin. 30 urte besterik ez duen arren, urte mordo daramatza lan horretan.

Eta magia ikuskizuna eta bihurrikaria (kontorsionista) ere izango ditugu ikuskizuna osatzeko.



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko
torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577
Antzuola
Tel. + 34 943 78 60 09
Faxa + 34 943 78 70 34



Ate eta pertsianak zabaltzeko
automatismoen fabrikazioa

INTERNET:
<http://www.matz-erreka.com>
<http://matz-erreka.mcc.es>

ELKARRIZKETA GENARO LASKURAIN TROPAREN BURUA ALARDEAN

“Mairuaren Alardea lagatzeko garaia iritsi zaidala uste dut”

AINTZANE IRIZAR

Aurten hogeita laugarren eta azkeneko aldiz hartuko du parte Mairuaren Alardean Genaro Laskurainek, eskopetarien kapitainak. Horregatik, urte hauen guztien gainean eta herriko jaien gainean egin dugu berba Genarorekin.

Zelan hasi zinen troparen buruaren papera egiten?

Eperra elkarteko bazkideak etorri zitzaizkidan paper hori betetzeko proposamena egitera. Hasieran zalantza izan nituen, baina, azkenean, onartu egin nuen eta hortxe ibili naiz urte mordoan. Nik uste dut eragina izan zuela ni altua izateak.

Hasi zinenetik hona asko aldatu da alardea?

Askorik ez, baina aldeketa batzuk egon dira. Aldaketetako bat, hain zuzen ere, izan zen nik egiten dudana pertsonaia sartu zutela alardean. Ez nago ziur, baina iruditzen zait kapitainaren diskurtsoetik atera zutela pertsonaia hori; halaxe esaten du dis-

kurtso horretan: “Galar-tza-Torreko kapitainaren esanetara, borroka zelaira...”. Horrekin batera, beste aldeketa bat ere gertatu zen: lehen, mairuari durbantea zapaldu eragiten zitzaion, eta orain ez.

Azkeneko aldeketa orain dela lau bat urte egin zen: lehen, frontoian hasten zen alardea eta orain, berriz, udaletxean. Bestalde, kalejira hasi aurretik armak aurkezten zaizkio kapitainari; hori ez zen egiten lehen.

Aurten parte hartuko duzun azkeneko aldia izanda, sekula baino bereziagoa izango da, ezta? Zergatik erabaki duzu lagatzea?


“Eperra elkarteko bazkideek proposatu zidaten pertsonaia horren papera egitea, eta hortxe ibili naiz urte mordoan”

Ez dut uste apartekoa izango denik, niretako beti bezalakoa izango da.

Nik lan hori oso gustura egin dut, bestela ez nintzateke horrenbeste urtean ibiliko. Hala ere, uste dut horrelako lanak lagatzeko garaia iristen dela, eta aurtentzen erretiratu naizenez, lagatzeko garaia ona zela pentsatu nuen. Bestalde, nik uste dut herriarendako hain berezia eta garrantzitsua den jai batek jarraitzea edukitzeko landare berriak landatu behar direla, jende berriak hasi behar duela. Enpresetan eta lantokietan ere halaxe gertatzen da.

Nik iaz esan nien Jai batzordeko kideei lagatzeko asmoa nuela; dena dela, beste inor topatzen ez bazuten, prest nengoela jarraitzeko. Azkenean, aurtengo izango da Mairuaren Alardean parte hartuko dudana azkeneko aldia. **Horrenbeste denboran anekdota bat baino gehiago izango duzu.**

Bai, bat baino gehiago... Esate baterako, bi urtean ETBkoak etorri ziren, eta urte horietako baten, agindu bat ematerakoan, nahastu egin nintzen. Horrelakoak ez dira ahazten.



HARATEGIAK



Kalebarren, 1. Antzuola.
943 76 64 84

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu herritar guztioi!



Komenio kalea, 2. Bergara.
943 76 10 72



Langela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!


OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU JAIXETAN!



ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94



Zabalo Iturgintza S.L.

Ondo ibili jaietan!

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gas
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-urrezte
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

GAZTEAK

Gazte Asanbladak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu jaietarako

Musika, herri kirolak, zezenak eta txokolate jana egongo dira jaietan, gazteek antolatuta

AINZANE IRIZAR

Udalaren egitarauaren barruan txertatu dituzten hainbat ekitaldi Gazte Asanbladako kideek antolatutakoak dira: zezenak, kontzertua eta Herri Olinpiadak, besteak beste.

Iazko jaietan moduan, aurten ere egitarau propioa antolatu dute Gazte Asanbladako kideek. Gainera, ekitaldi horiek guztiak eta urtean barrena antolatzen dituztenak finantzatzeko txosna jarriko dute.

Jaiak hasterekin batera, triki-bertso poteoa izango dugu; eguenean, 20:30ean izango da hori. Herriko trikitilariak eta inguruko bertsolariak hartuko dute parte txikiteo horretan.

Egubakoitzerako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte: batetik, zezen txikiak eta *poney*-ak izango ditugu Herriko Plazan, arratsaldeko zazpietan; bestetik, kontzertu hirukoitza antolatu dute: Txapelpunk,



IRATI AGIRREAZALDEGI

Iaz sekulako arrakasta izan zuten Gazte Asanbladak antolatutako Herri Olinpiadek.

Cañeria 13 eta Deskontrol taldeek egingo dute kontzertua, 23:00etan.

Eta parrandan ibili ondoren indarrak hartzeko, txokolate jana egongo da txosnetan, goizaldeko bos-

tetan; bukatzeko, berriz, zapatu arratsaldean Herri Olinpiadak jokatuko dira. Oraindik baduzue izena emateko aukera. Antzuolako, Osintxuko eta Etxarri-Aranazko taldeak lehiatu-

ko dira, iaz bezala. Zurrategin izango da hori, 19:30ean. Iaz sekulako arrakasta izan zuen txapelketa horrek, eta azkenean, Etxarri-Aranazko taldeak irabazi zuen.

MOBILIZAZIOAK

Jakingo duzue, orain dela pare bat aste laga zuten gazteek Kalebarrengo lokala, Udalarekin hainbat desadostasun izan zituztelako. Gazte Asanbladako

kideek nahi dute gaztetxea gazteek eurek kudeatzea. Bada, hori eskatzeko eta "euren eskubideak defenditzeko", hainbat mobilizazio iragarri dituzte herriko jaietarako.

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela antzuolar guztiok eta bertaratzen zaretenok!



Gabilondo-Arregi

h a r a t e g i a

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

II Sukaldeko Altzariak Harizki

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zorionak antzuolarrok!

**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4-behea • ANTZUOLA • Tel. eta faxa 943 78 71 80

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN, ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSESTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
 211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
 TEL: 943 786000
 FAXA: 943 766008 - 943 787095
 E-MAIL: goizper@goizper.com
 Web gunea: www.goizper.com



HIRU

ARROZTEGIA

Antigua auzoa 8. 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59 eta 678 61 50 28/27

ATEAK
 •
 LEHIOAK
 •
 ZORUAK
 •
 HORMA ARMAIRUAK

Ondo pasau
 jaixak!

Zerbitzuak

GUREGAIAK/ IKASLEAK

Ikasle askok lan egiten dute udako oporretan

IKER BARANDIARAN/AINTZANE IRIZAR

Ikasle izateak alde onak eta txarrak ditu. Diru gutxi eduki- ztea da alde txar horietako bat. Horregatik, hainbat gaztek lan egiten dute uztailean, batez ere, abuzturako dirua lortzeko...

Ikasle gehienek, berandu jota, uztail hasieran hartzen dituzte oporrak, eta irailera edo urrira arte egoten dira oporretan.

Ikasleak izanik, diru iturri murriztagoak izaten dituzte, eta abuztuan kanpora joateko edo lagunekin jairik jai ibiltzeko diru estra eskuratu nahi izaten dute askok. Horietako askok inguruko lantegietara jotzen dute lan

bila; beste batzuek umeak edo adinekoak zaintzen dituzte; eta badira udalekuetan begirale lanak egiten dituztenak ere. Bergaran bertan, esaterako, 30 bat gaztek dihardute Udaleku Irekietan begirale lanetan, eta horietako asko ikasleak dira. Lantegi baten sartuta lan egitea baino dibertigarriagoa da, baina, era berean, ume eta gaztetxoekin pazientzia handia behar izaten dute begiraleek.

Azkenik, eskola partikularrak ematen dituzten ikasleak ere asko dira. Batez ere, ikasle finenek egiten dute aukera hori. Garai baten gazte askok ematen zituzten eskola partikularrak udan, baina, gaur egun, ez da hain ohikoa lan hori egitea.



Udalekuetan begirale lan egiten dute gazte askok.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Iñigo Olañeta

“Ligatze kontuetan oso txarra naiz”

AINTZANE IRIZAR

Kirol talde gustukoena zein duen galdetu eta txirrindulari talde bat aipatzen digun lehenengoa da Iñigo; izan ere, txirrindulari izandakoa da. Telebistako saio guztiak ikusten dituela esan digu.

- **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**
Gazteondako jarduera gehiago antolatuko nituzke.
- **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**
Orain ez daukat ezer ere. Garai baten, Bai Euskarari zioen pegatina bat, esaterako, izan nuen karpetan.

- **Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?**
La isla de los famosos, adibidez, ez zait batere gustatzen; *Sorginen laratza*, berriz, asko gustatzen zait.
- **Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?**
Gran Hermano saioan ibilitako Kiko; gustukoena, aldiz, Anjel Alkain. Oso aktore ona da.
- **Zerk amorratzen zaitu?**
Faltsukeriak.
- **Zer estimatzen duzu besteengan?**
Laguntasuna eta alai izatea.
- **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**
Osasunari eta neure buruarekin gustura egoteari.

- **Zure bertute bat? Eta akats bat?**
Alaia naiz; akatsa, berriz, batzuetan berba larregi egiten dudala.
- **Zelan ligatzen duzue gazteok?**
Ni oso txarra naiz kontu horietan; dena dela, nik uste dut jai giroan ligatzen dela, gehienbat.
- **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**
Fisikoari baino gehiago, jator izateari ematen diot garrantzia.
- **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**
Australiara joango nintzateke, lagunekin.
- **Etorkizunerako amets bat?**
Ondo bizi izatea, familia osatzea eta osasuntsu bizi izatea.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Txirrindularitza eta mendia • **LIBURU BAT:** Che Guevararen biografia
FILM BAT: 'Limite vertical' • **MUSIKA TALDEA:** Joxe Ripiau • **KIROL TALDEA:** Euskaltel-Euskadi

BERRIGARA
Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11

E, TXO!

GAZTEMANIAK LEHIAKETAKO ABESTIAK ENTZUNGA!

Zazpigarren Gaztemaniak! maketa lehiaketako abestiak entzungai daude Interneten, eta iritzia emateko aukera ere badago. Hain zuzen ere, www.gaztemaniak.net webgunean topatuko dituzue.

Gipuzkoako 28 talde eta bakarleri aurkeztu dira lehiaketa horretara, eta guztion iritziak kontuan hartuko dituzte irabazlea aukeratu baino lehen.

ANAGRAMA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Agenda 21 prozesua adierazten duen anagrama aukeratzeko lehiaketa antolatu du Zarauzko Udalak. Parte hartu nahi dutenek uztailaren 30era arte dute lanak aurkezteko epea. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, 943 13 09 60 telefono zenbakira dei dezakezue.

ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO BEKAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) administrazio publikoaren esparruan prestatzeko lau bekarako deialdia egin du.

Bekadunek eurek aukeratutako gai baten gaineko ikerketa-beka bat egin beharko dute.

Beka horietako bat lortzeko beharrezkoa da ikasketak 1999an edo hurrengo urteetan bukatuta izatea.

Uztailaren 22ra arte dago beka horiek eskatzeko epea zabalik. Informazio zabalagoa eskuratzeko hainbat aukera dituzue: batetik, www.ivap.org webgunera jo dezakezue edo 945 01 76 67 telefono zenbakira deitu; eta bestetik, ekainaren 20ko aldizkari ofizialean begira dezakezue.

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



ZAHARREN ETXETIK

San Joxepeko abesbatzak emanaldia egingo du domekan Antzuolako parrokian

E.M.

San Joxepeko abesbatzak emanaldia egingo du domekan, hilaren 13an, Antzuolako parrokian. Domekan Erretiratuen Eguna ospatuko dute Antzuolan, eta San Joxepekoek han abesteko gonbidapena jaso dute. 11:30ean meza izango da Antzuolako parrokian, San Joxepeko abesbatzak lagun-duta. Mezaren ondoren, emanaldi txiki bat egingo du Joxe Patxi Azkaratek zuzentzen duen abesbatzak. Besteak beste, *Festara*, *Goizian argi hastian*, *Viva tute*, *Santa Lucia*, *El tilo*, *Mukhile ndi moyo* eta *Euskal Herriko* abestuko dituzte emanaldian.

BURGOSERA IRTEERA

Bestalde, San Joxepetik Burgosera irteera egingo du datorren eguaztenean, hilaren 16an. Besteak beste, Burgosko Katedrala eta Mirafloresko Kartusia bisitatu dituzte. Bazkaldu Burgosen bertan egingo dute, eta Gaztelako ohiko menua izango dute. Izenemateak 29 euro balio du. Irteeran parte hartu nahi dutenek 943 76 30 09 telefono zenbakira dei dezakete izena emateko. Hain zuzen ere, abuztuko oporren aurretik erretiratuek egingo duten azken irteera izango da.

Bestalde, Burgosera joateko bezperan, martitzenean, Osintxura ibilaldia egingo dute. Irteera erretiratuen elkartetik egingo dute 17:00etan. Aurten hainbat ibilaldi egin dituzte San Joxepeko lagunek, eta irailetik aurrera programarekin segitzeko asmoa daukate.

TXAPELKETAK ERRETIRATUEN EGOITZAN

Azkenik, Santa Marinako jaien barruan, datorren astean erretiratuendako txapelketak jokatuko dira. Astelehenean, hilaren 14an, Briska Txapelketa jokatuko da erretiratuen egoitzan, 16:00etan;

martitzenean, ordu eta toki befe-an, Tute Txapelketa jokatuko da; eta egunean, hilaren 17an, mus-toka, igela, bolo txapelketa eta

billarreko finala jokatuko dira, 16:00etan hasita. Aurreko urteotan partaidetza handia izan da txapelketotan eta aurten ere jende-

aren erantzuna ona izango dela espero dute antolatzaileek. Gizon eta emakumeei parte hartzeko dei egin diete antolatzaileek.

Era berean, hilaren 18an, Santa Marina egunean, erretiratuei zuzendutako ibilaldi neurtua egingo dute, 10:30ean hasita.



Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobe den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

*San Joxepeko
abiesbatzak mezan
abestuko du
domekan Antzuolako
parrokian, 11:30ean*

*Santa Marinako
jaien barruan,
txapelketak izango
dira hurrengo
asteen San Joxepen*

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU **DHL**

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bergarako zein bi tokitan dago horrelako irudia? Nor da?

GALDEDEBALDE

1.

Santa Marina parrokiaren zaharberritze lanak egin dituzte. Noiz da Santa Marina eguna?

- A/ Uztailaren 20an.
- B/ Uztailaren 10ean.
- C/ Uztailaren 18an.

2.

Zein da Aukeran dantza taldeak estreinatuko duen lan berriaren izenburua?

- A/ Suaren itzalpean.
- B/ Izena duen guztia omen da.
- C/ Izenik gabeko kalea.

3.

Zeintzuk izan dira Frontenis Txapelketako irabazleak?

- A/ Izquierdo eta Hurtado.
- B/ Barcala eta Bellanco.
- C/ Sánchez eta García.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDEN GONZÁLEZrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Eden! Aurreko asteko galderen erantzunak: Bonofotoa: Lamaño-Etxeberri / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Gurelesa esne osoa

Litroko brika.

0,67 €

111 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

“Eskuekin lan egitea sentsazio berezia da; benetan lasaigarria da eskulturak lantzea”

EDU MENDIBIL

ESKULTOREBERGARARRAK GAUR

Idoia Etxarri

Simon Arrieta Zeramika Taldean orain dela bost urte hasi zen, eta poliki-poliki bere kabuz ikasi duela diosku. Buztinarekin eskulturak egiten ditu: “Normalean aurpegiak lantzen ditut eta buztina erregogorra erabiltzen dut. Piezak labean sartu baino lehen koloreetako oxidoa ematen diet. Buztinaz gain, beste hainbat material ere erabiltzen ditut batzuetan, burdina, harria eta beira, esate baterako. Niretako gauzak egiten ditut eta pieza gehienak opari egiten ditut”.

Taldeak Zabalotegin duen lokale-ra sarritan joaten da, eta izugarri gustatzen zaio eskultura: “Eskuekin lan egitea sentsazio berezia da. Batzuetan zail egiten da bururatzeko zaidan pieza egiten asmatzea. Hala ere, eskulturak egitea oso lasaigarria da. Gainera, jende gazte berria sartu da taldean, eta horrek bizitasuna eman dio taldeari. Oso giro ona dago gure artean eta beti dago aukera albokoarengandik ikasteko”. Taldeak egin izan dituen erakusketetan parte hartu izan du Idoiak, eta gustuko artisten artean Jorge Oteiza eta Lorenzo Quinn aipatu dizkigu.

ARDATZA
Brikolajea

- Ateak eta zokaloak
- Horma-armairuak
- Sarrailak
- Heldulekuak

- Koadroak markoan ipini
- Era guztietako moldurak
- Apalak
- Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Plater konbinatuak
Oilasko erreak eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Ander Telleria
Uztailaren 12an, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Gutiérrez
Uztailaren 9an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Igor Arizmendiarieta
Uztailaren 5ean, 28 urte.
Zorionak eta urte
askotarako! Etxekoak.



ELGETA
Eneko Oianguren
Uztailaren 9an, 11 urte.
Urte askotarako Ojan!
Gorka eta Igor.



BERGARA
Saioa Unamuno
Uztailaren 14an, 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Malen Kalboetxeaga
Uztailaren 10ean, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iker Osinaga
Uztailaren 10ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Julen.



BERGARA
Nerea Marzo
Uztailaren 17an, 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maider Santorcuato
Uztailaren 12an, 7 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta gurasoak.



BERGARA
Jurgi Zuazo
Uztailaren 7an, 9 urte.
Zorionak! Izugarri maite
zaitugu! Etxekoak.



BERGARA
Nekane Alegria
Uztailaren 15ean, 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Jon Ander Rodriguez
Uztailaren 15ean, 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

UREDERRA ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Mujika gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34



TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatzak
Txabierroak


Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

GRUPO **RK UZ** 1950-2003

Zure
etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALET




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALET



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALET



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11 / 165. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Anelkarrek gari-jotzea antolatu du, hainbat proiektutarako dirua batzeko

AINTZANE IRIZAR

Herriko jaien inguruan urtero egiten duen moduan, aurten ere elkartasun festa antolatu du Antzuolako Elkartasun Taldeak. Aurtengoa, baina, festa benetan berezia izango da; izan ere, dirua lortzeaz gain, garai bateko ohiturak ezagutzera eman nahi dituzte.

Gari-jotzea zer zen eta zelan egiten zen erakutsiko diete herritarrei bihar, zapatua. Horretarako, hainbat erakustaldi antolatu dituzte: gari-ebaketa, azaoak eta metak zelan egiten ziren eta gari-jotzea bera zelan egiten zen ikusteko aukera egongo da, besteak beste. Horrez gain, *galapaixa* -gari sailaren ugazabak auzolanean ibilitakoei ematen zien afaria- egongo dute eta erromeria ere egongo da. Bestalde, egunean barrena Errotaberriko eta Antiguako errotak martxan egongo dira. Txosna ere jarriko dute, taloak egin eta saltzeko.

HAINBAT PROIEKTU BULTZATZEKO

Erakustaldi horien helburuetako bat garai bateko ohiturak ezagutzera ematea den arren, helburu nagusia da Kongo, Senegal eta



Kongon eskola bat egiteko izango da, besteak beste, zapatuan batutako dirua.

Brasilera dirua lortzea, hainbat proiektu bultzatzeko.

Brasilen kasuan, Canudos herrian ur putzuak egiteko bideratuko dute dirua. Senegalen, berriz, umeendako udaleku bat egiteko; eta Kongon, azkenik,

eskola bat eraikitzeko. Bestalde, San Isidro egunean txistorra jana antolatu zuten herritar batzuek, Kongorako. Kontua da eskola bat eraiki dutela hantxe, baina uste zuten baino ume gehiagok eman dutela izena. Horrela, eskola han-

ditzeaz aparte, umei ikasturtea ordaintzeko ere behar dute dirua.

Hortaz, ondo pasatu eta gari-jotzea zelan egiten zen ikustez gain, herrialde horiekiko elkartasuna adierazteko aukera ere izango dugu bihar, zapatua.



San Ferminak udalekuetan

Joan den astelehenean, uztailaren 7an, San Ferminak ospatu zituzten herriko Udaleku Irekietako neska-mutikoen. Zezen eta guzti ospatu zuten, gainera, jai hori. Plazan San Fermini abestu ondoren, entzierroa izan zuten eskolako jolastokian. Nahiko korrika egin zuten umeek zezenaren aurrean. Zezenez aparte, buruhandiak ere ibili ziren, eta buruhauste galantak izan zituzten umeek hainbeste arriskurekin. 90 ume dabilta aurten Antzuolako Udaleku Irekietan./A.I.

LABUR

Erretiratuek bazkaria egingo dute etzi, domeka

Jaien aurreko aste bukaeran urtero egiten duten moduan, bazkaria egingo dute domekan herriko erretiratuek. 11:30ean meza izango dute: Bergarako Erretiratuen Abesbatzak abestuko du mezan, eta horren ondoren kontzertu txikia egingo du. Bazkaria, berriz, 14:30ean izango da, frontoian.

Txirrindulari lasterketa jokatu dute domekan

LVIII. Antzuola saria eta Iñaki Leteren omenezko XI. txirrindulari lasterketa jokatu dute, domekan, amateur mailako 19 eta 20 urteko txirrindulariek. 09:30ean hasiko da, eta 12:30 aldera bukatu. 125 kilometro egingo dituzte; Deskarga eta Asentzioko gainak pasatuko dituzte.

Bukatu da Peña Aiastuiren 'challenge'-a

Domekan bukatu zen *challenge*-a, San Martzialerako igoerarekin. Infantil mailan, Odei Arregi geratu da lehenengo sailkapen orokorrean; alebin mailan, Jon Iturbe eta Aitor Laskurain geratu dira lehenengo; benjaminetan, Jon Madariaga; eta txikienean artean, Urtzi Muguruza.

Uztailaren 15ean egingo dute alardeko entsegua

Uztailaren 15ean egingo dute Mairuaren Alardeko azkeneko entsegua. 21:00etan egingo dute entsegu hori, Udal Pilotalekuan.

Alardean parte hartuko duten guztiak daude deituta entsegu horretara: tropako kideak, danbor jotzaileak, txistulariak, kanoiekin ibiltzen direnak...

GAZTETXEA

Udala gazteekin hitz egiteko prest dago

AINTZANE IRIZAR

Aurreko astean esan genizuen moduan, gazteek batzarrean erabaki zuten lokala lagatzea. Udalak bere jarrera zein den eta prozesua zelakoa izan den azaldu nahi izan digu orain. Bide batez, gazteekin hitz egiten jarraitzeko prest daudela adierazi digute.

Gaztetxea itxi zutenetik lokalik gabe zeuden gazteak. 2002. urte bukaeran Kalebarrengo lokal bateko eta Surpeko jabeekin hitz egin zuten, eta gazteei bi proposamenak aurkeztu zizkieten. Haiak nahiago izan zuten lokala hartzea, euren ekintzak aurrera ateratzeko egokiagoa zelako.

Lokala hartu eta gutxira, Kultura batzordearekin egindako batzar baten, egun berezietan barra bat jartzea eskatu zuten gazteek. Batzarrean adostasun horretara iritsi ziren Kultura batzordearekin, baina ez Udalarekin.

UDAL BERRIAREKIN HARREMANAK

Hauteskundearen ostean, behin udalbatza berria osatuta, beste batzar bat egin zuten. Udalaren

esanetan, orduan konturatu ziren gazteak Udalarekin ez zegoela inolako hitzarmenik; hau da, Kultura batzordearekin hitzartutakoak ez zuela baliorik. Bestalde, jakin zuten Gobernu batzordean argi geratu zela lokal horretan ez zegoela barrarik jartzerik. Izan ere, lokal hori behin-behinekoa izanda, Udalak zentro kultural edo elkarte zentro moduan kalifikatu zuen. Gazteen helburuetako bat autofinanziazioa da, eta horretarako nahi zuten egun berezietan barra jartzea. Txosnak jartzea edo hutsik dauden tabernak hartzea proposatu zien Udalak. Handik gutxira, beste batzar bat egin zuten, eta gazteek adierazi zieten diru premia zutela. Udalak diru kopuru bat izaten du gazteen ekintzetarako, eta hori eskaini zien; hori bai, egin beharreko ekintzak zehaztu eta aurrekontua aurkeztu beharko zutela azaldu zieten. Gazteek gaztetxea autogestionatu nahi dutela-eta, lokala lagatzea erabaki zuten, Udalak planteatzen zien gazte lokala ez zelako eurek nahi zutena.

Dena dela, Udalak adierazi digu gazteekin hitz egiten jarraitzeko prest dagoela.



Arrolak Pirinioetara mendi irteera egin zuten

Azkenaldiko eguraldi ona aprobetxatuz, gero eta mendi irteera gehiago egiten dituzte Arrola mendi elkartekoek. Aurreko asteburuan, esaterako, Pirinioetara joan ziren, Kataluniako Aran bailarara, hain zuzen ere. Hantxe, Montarto mendira igo zuten, 2.833 metroko altuera duen mendira. Guztira, hamahiru lagunek parte hartu zuten mendi irteera horretan. Hurrengo irteera hila-ren 25ean egingo dute; Markinatik Santa Eufamia basilizara joango dira eta handik, berriz, Lekeitiko hondartzara joango dira. Hiru orduko ibilaldia da, erraza, gaztetxo, gazte eta nagusiendako modukoa. Lea-Artibaiko herririka eta itsasaldea ikusteko aukera paregabea eskaintzen duena. Izena eman nahi izanez gero, Arrolaren egoitzara jo dezakezue./A.I.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria · Langilea

Espainiar bandera udaletxean

Maiatzaren 25ean Gertu Gaek desabantailuz betetako hauteskunde antidemokratikoetan egundoko emaitzak lortu zituen: 427 antzularren botoa jaso zuen. PNV-EA koalizioak 615 lortu zituen, guk baino 188 boto gehiago besterik ez. Hortaz, antzularrok ondorengo udala hautatu genuen: PNV-EAk 5 zinegotzi, GERTU GAEK 3 eta PSOEK 1. Hala ere, PNV-EAk ondorengo udala erabaki du: PNV-EAk 5, PSOEK 1 eta GERTU GAEK 0. Mireia, Juan Antonio eta ni Antzuolako udal hautetsiak izan arren, erabat

baztertuak izan gara. Baina hori baino askoz larriagoa da ordezkaten ditugun 427 antzular guztiz baztertuak izan direla.

Ekainaren 14an Jose Angel Zabalok "alkate" kargua hartu zuenean oso hitz politikak erabili zituen guztion artean hitz eginez egoera hau konpondu behar zela esanez. Denbora pasatu zen eta ezer ere ez; azkenean, guk deitu genion hitz



"427 lagun guztiz baztertuak izan dira Antzuolan"

egin nahi genuela esateko. Guk egoera hau konpontzeko borondatea azaldu arren, berak ez zuen borondate handirik azaldu eta horren adibide garbia hurrengo plenoan izan genuen. Dagozkigun eserlekuetan eseri ginenean Jose Angelek esan zigun gu ez garela zinegotziak

eta ezin ginela hor eseri. Ondoren, kargu guztiak euren artean banatu zituzten. Plenoak

goizetan egitea onartu zuten, herritarren eta gure partehartzea oztotatzeko. Azkenik, esan zigun plenotan hitz egitea nahi badugu, egun batzuk lehenago idatziz esan behar dugula zein puntutan eta zertaz hitz egin nahi dugun eta berak emango edo kenduko digula hitza.

Jose Angelek behin eta berriz esan digu espainiar legetik milimetro bat ere ez dela mugituko, beraz zoritxarrez aurtengo jaietan 39/1981 legeak dioen bezala Antzuolako jaietan Espainiako bandera izango dugu ikurrinaren eta mairuaren banderaren erdian.

LABUR

Julen Garitano, lehen euskalduna Austrian

Austriako Kärnten herrian jokaturako Ironman lasterketan lan bikaina egin zuten antzularrek: Julen Garitano 89. postuan sailkatu zen, bederatziratu ordu, 20 minutu eta 16 segundoko denborarekin; Karlos Baleztena 160. sailkatu zen (09:40:49); eta Imanol Pildain, azkenik, 765. postuan iritsi zen helmugara. Hark 11 ordu, 19 minutu eta 40 segundo behar izan zituen. 2,2 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratonia egin zituzten.

II SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

DEKORAZIOA

ABAD

PINTURAK

ANTZUOLA

PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko uztailaren 11 / 149. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Sorarrain eta Apezetxea pilotariak, ETB Kantxa lau t'erdiko torneoko txapeldun

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eñaut Sorarrain alkizarra izan da txapeldun aurtengo ETB Kantxa lau t'erdiko txapelketan, 23 urtez azpikoetan. Kadeteetan, berriz, Apezetxea goizuetarra. Sorarrainek 22-13 irabazi zuen finala eta Apezetxea, berriz, 22-13 nagusitu zen.

Domekan, hilaren 6an, jokatu ziren ETB Kantxa pilota torneoko finalak Elgetako Udal Pilotalekuan. Eñaut Sorarrainek hasieratik garbi erakutsi zuen bere nagusitasuna 23 urtez azpikoetan. Eskuinez gogor jo zion pilotari, eta Aratz Mendizabal zaldibiarri lana zaildu egin zion. Pilota lau t'erdiko maratik gertu jaritzen saiatu zen, eta, bost aldiz pasa egin arren, joko hark eta sakez egindako bederatzi tantok partidua irabazteko balio izan zuten. Sakebueltan ere dohain handiak erakutsi zituen, txapa gainean moztuta eta txokoan dejadak eginda. Horrela, txapela ez ezik publikoa ere bereganatu zuen. Mendizabali ere ez zitzaion zaleen animorik falta izan. Zaldibiarrek aurki egingo du debuta Asegar-



Txapelketako finalistak eta sari emaileak, Elgetako Udal Pilotalekuan, finaleko partiduak jokatu ostean.

cerekin. Ekainean zen hastekoa, baina nahiago izan du Elgetako txapelketa jokatzeko. Horrek erakusten du pilotariak zenbat estimatzen duten txapelketa hori.

KADETEAK

Kadeteetan, Jon Apezetxea goizuetarrak Mikel Iraolaren aurka jardun zuen, eta 22-12 izan zen emaitza, Apezetxearen alde. Ezke-

rrerz pilotari ondo ematen bada kiela erakutsi zuen, baita jokaldi egokiena aukeratzen asmatzen duela ere. Joko ausarta erakutsi zuen, batez ere tantoak ondo amai-

tuta. 40 minutu iraun zuen partiduan pilotakada asko izan ziren. Markagailuan 10-1 aurreratu ondoren, Iraola gerturatu egin zen (12-9), baina Apezetxeak berriz egin zuen gora, ia hogeita bira heldu arte. Bi pilotariak maila ona erakutsi bazuten ere, Apezetxeak ondo merezita irabazi zuen.

Eugi, Beloki, Olaizolarren eta beste pilotari handi batzuen erakusleho izan zen Elgetako pilotalekua jendez beteta zegoela, pilota partidu politak eta pilotarien arteko lehia bizia ikusteko aukera egon zen. Azkenean, Sorarrain eta Apezetxea txapeldun.

ARETO FUTBOLA

Bestalde, Azoka Nagusiko jaietan aurtengo Areto Futbol Txapelketako finalak jokatu ziren, eta Arrasateko Ariñiketan taldea izan zen nagusi, bigarren urtez, Bergarako Chievo ekipoari azken partidua 7-6 irabazita. Txapelketako golegile nagusiaren saria Chievo taldeko Patxiri eman zioten.

F'inalean bi taldeen jokoa oso parekatua izan zen, eta arazuko minutuak bete arte ez zen norgehiagoka erabaki.



Etxeko txikienak jolasean

Argazkikoak udako aisialdi programan izena eman duten ume elgetarrak dira. Joan den astelehenean hasi zituzten aisialdi jardunak 3 eta 6 urte arteko hamabi umek, eta, besteak beste, marrazkiak eta jolasak egin dituzte.

Musika lagun dutela, zintzo aurkitu ditugu margoak eskuetan hartuta, Izaskun eta Oihana begiraleekin.

Nagusiagoek, berriz, multikirolean jarduten dute, hau da, hainbat kirol egiteko aukera ematen dien ikastaroan./I.A.

LABUR

KZGunea aurki aldatuko dute liburutegi albora

KZGunea kultura etxeko lehenengo solairuan egon da orain arte, baina aurki bigarrenera aldatzekotan dira. Horretarako, bandeja batzuk noiz ipini zain daude arduradunak. Izan ere, ordenagailuen teklatuak jarriko dituzte bertan. Guztira hiru ekipo informatiko egongo dira kokaleku berrian, liburutegiaren albora. Liburutegiaren orduetegi bera izango du: abuztuan itxita egongo da eta irailetik aurrera 16:30etik 20:00etara zabalduko dute.

Lau eguneko jaietan, adin eta gustu guztiendako ekitaldiak izan dira herrian

Astebete, jaietako biharamunari aurre egiteko nahikoa gehiendako. Baina badirudi oraindik batzuk jaietan daudela, eta jaiak gogoan izateko hona hemen zenbait irudi.

Astegunak balira jai, gazte alferrak hori nahi, dio esaerak. Gazte elgetarrek, ordea, ez zuten alferrik lanean jardun, eta batzuek ezkontza txukuna prestatu zuten bitartean, ijitoak *tiropitxo* eta guzti azaldu ziren herrian. Beste batzuek tropiko haizeak ekarri zituzten.


Gazteak ez ezik, edadetuak ere sasoiko daude Elgetan. Zapatuan, herri kirolak ikusi ostean, guztiak elkartu ziren mahaiaren bueltan.

Zapatuko ekitaldi nagusia: danborrada. Ume eta heldu, guztiak danbor zein kupelak astinduz pozik hurbildu ziren plaza-ara. Bertan estreinaldia: Elgetako Martxaren doinua.

Laugarren egunean azoka, eta jaien amaiera ate joka. Jaiak agur esatear zirela euri tantak, eta Espaloian aurkitu zuten elgetarrek babes. Baina bertso, dantza eta trikiti saioa amaituta, nahiz eta batzuek barrutik busitzea pentsa, ez zen erreza. Elgetan itxita taberna gehienak. Orain, datorren urteko jaietara arte zain egon behar denak.




Autoa, abadea, orkestra, ezkongaiak... Eta ezkontzaren ondoren, Elgetan jai.



Elorri atsoak zazpi astoren gainean, eta Elgetan umeak pottoken aldamenean.



Ijitoak, ahuntza eta *tiropitxo*. Jaiak ote dira abilezia probatzeko sasoia?



Umeak gaztelu puzgarrietan saltoka, aukera badago-eta.



Danborrada: Elgetako Martxa ezagutu ez duen herritarrik bada?



Umeek jaietako nekerik ez, eta dantza ingurukoek egingo ahal luketen da zalantza.

DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzarena
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

BOLATOKI

Taberna
Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Antzuolarrak San Ferminetan, 1961ean

San Ferminen jende asko erakartzen dutela jakinekoda, eta hori ez da atzo goizeko kontua. Antzuolarrak ere ospatzen zituzten San Ferminak; begira, bestela, honako lagun koadrila hau, 1961ean ateratako argazkian. Gainera, Antzuolako jaiak eta San Ferminak ez ziren

jarraian izaten; izan ere, garai baten, Antzuolakoak abuztuan ospatzen zituzten. Lepotik zintzilik berakatzak hartuta ikusten ditugu; gaur egun ez dugu jende askorik ikusten Iruñetik berakatzak lepoan hartuta datorrena, baina garai baten ohitura zen San Ferminetatik berakatzak ekartzea etxera.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik, Salvador Olabarria, Eduardo Etxaniz eta Jose Lizarralde *Marca*. Makurtuta, berriz, ezkerretik hasita, Jose Antonio Azkargorta eta Tomas Larrea.

Argazkia: Salvador Olabarria



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA


Eguzki auzoa, 1975ean

Orain dela 28 urteko argazkia dakarkizuegu oraingoan. Eguzki auzoa orduantxe egin zuten, eta ordutik hona askorik aldatu ez den arren, inguruak dezente aldatu dira. 1975eko argazkia aterata dagoen tokitik, esaterako, gaur egun argazkia aterata, ez dugu Eguzki auzoa ikusten. Aiherrako etxebizitzak daude han, orduan ortuak zeuden tokian. Errota-Berri ere dezente aldatuta dago.



≈ 1975

Orain dela 28 urte ortuak zeuden tokian, gaur egun, Aiherrako etxebizitzak daude, eta dezente aldatu da inguru hori.



2003


Errota-Berri ere aldatuta dagoela ikusten dugu; batez ere, gaur egun Alzarte okindegia eta gozotegia dagoen eraikina.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**JAUJA
KIROLAK**


Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



GABILONDO
INMOBILIARIA


Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



Gure helburua

2003 UDA

 **RENAULT SERVICIOS**

AUTOBERRI; Amillaga 5 • 943 76 40 68 • Bergara

Berria Garajea

Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

T. Blanco

Amillaga 22 • 943 76 17 35 • Bergara

DESA CRISTAL

Santalaiz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara


ELGETA AUTOAK

Berraondokua • 943 76 82 02 • Elgeta

Giauto

Olabarrena z/g • 943 76 33 44/46 • Bergara • www.giauto.es

ION AUTOAK

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

JASO GARAJEA

Amillaga 1, 4 pabilioia • 943 76 33 00 • Bergara


ALMACENES LASCAR S.L.

Amillaga 32 • 943 76 19 11 • Bergara

MARKIEGI autoak

Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara

Murillo Garajea

San Lorenzo z/g • 943 76 13 84 • Bergara

 **SAN MARTIN Karrozeriak**

Barruti txiki 1 • 943 76 07 97 • Bergara

 **TXOMIN GARAJEA**

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

**ARISTEGI-TOLA
ITURGINTZA**



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

**J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza**

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

**BERGARA
Margoak**

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



GOYSMA

Urteaga 9
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

**UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK**

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



**UR
kristaldegia**

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoa

**Ei izarra
elektrizitatea**

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak